



EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN ETA
INGURUMEN SAILA

Industria Sailburuordetza

Proiektu Estrategikoen eta Industria-
Administrazioaren Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y
MEDIO AMBIENTE

Viceconsejería de Industria

Dirección de Proyectos Estratégicos y
Administración Industrial

**EBAZPENA PROIEKTU ESTRATEGIKOEN ETA INDUSTRIA
ADMINISTRAZIOAREN ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ ENTZUNALDIAREN
ETA INFORMAZIO PUBLIKOAREN IZAPIDEAK EGINGO BAITIRA ISTRIPU
LARRIETAN GAI ARRISKUTSUAK TARTEKO DIRENEAN SORTZEN DIREN
ARRISKUEI BURUZKO INFORMAZIO-, EBALUAZIO- ETA KONTROL-
ARAUBIDEARI BURUZKO AGINDU-PROIEKTUA EGITEKO PROZEDURAN.**

Ekonomiaren Garapeneko, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2021eko maiatzaren 18ko Aginduaren bidez, istripu larrietan gai arriskutsuak tarteko direnean sortzen diren arriskuei buruzko informazio-, ebaluazio- eta kontrol-araubideari buruzko Agindu-proiektua egiteko prozedura hasi zen.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8.1 artikuluan agindutakoaren arabera, eta hasteko aginduaren xedapenetan adierazi bezala, herritarren eskubide eta interes legítimoak ukitzen dituzten xedapenei entzunaldiaren izapidea egin behar zaie, bai eta izaerarengatik hala behar duten gainerako xedapenei ere. Bestetik, manu horren bigarren apartatuan, adierazita dago nola egin daitekeen entzunaldi hori: zuzenean, edo eraginpean hartuta dauden herritarrek biltzen edo ordezkatzeko dituzten erakunde eta elkarten bitartez –zeinek lege onartuta egon behar baitute–, baldin eta erakunde eta elkarte horien helburuek xedapenaren xedearekiko lotura zuzena badute.

Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 133 artikuluan ezartzen duenarekin bat, “arauak pertsonen eskubide eta interes legítimoei eragiten dienean, zuzendaritza-zentro eskudunak dagokion webgunean argitaratuko du testua, ukitutako herritarrei entzunaldia emateko eta beste pertsona eta entitate batzuek egin ditzaketen ekarpen gehigarriak jasotzeko. Era berean, zuzenean eska dakieke iritzia arauaren eraginez beren eskubide edo interes legítimoei ukitzen zaizkien pertsonak biltzen edo ordezkatzeko dituzten eta beren helburuak arauaren xedearekin zerikusi zuzena duten antolakunde edo elkarte lege aitortuei”.

Manu horien betetzeko, Agindu-proiektua egiteko prozedura hasteko aginduan, egin beharrekotzak jo zuten entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapideak egitea, izapidetzen ari den arauan ahalik eta eragile gehienek parte hartzea bermatze aldera.

Azaldutakoa kontuan hartuta, eta Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8. artikuluekin eta Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23koa 68/2021 Dekretuarekin bat etorritik, hau

EBAZTEN DUT:

Lehena.– Entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapideak egitea istripu larrietan gai arriskutsuak tarteko direnean sortzen diren arriskuei buruzko informazio-, ebaluazio- eta kontrol-araubideari buruzko Agindu-proiektuari, hoguei egun balioduneko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Donostia - San Sebastián, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ



Aurreko apartatuan xedatutakoa betetzeko, araudi-proiektuaren testua eskura jarriko da bai formatu fisikoan, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren Zuzendaritzan (Vitoria-Gasteiz, Donostia kalea 1, Lakua I, O eraikina, 5. solairua, F gunea), bai formatu elektronikoan Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan (www.euskadi.eus) eta Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean.

Halaber, epatu egiten dira xedapenaren xedearekiko lotura zuzena duten eta legez onartutako erakunde eta elkarteak.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Vitoria-Gasteizen, sinatu den datan.

Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren zuzendaria,
ZIGOR URKIAGA URKIZA.